

PATRI URKIZU

UNED

Axularren garaiko sermoi argitaragabe bat: *Erunt signa in sole, et luna, et stellis*. l. 21., *Goure ginco omnipotentac...* Aurkezpena, oharra eta transkripzioa.

Justitia et pax osculatae sunt (Ps.84)

JUSTIZIAK eta bakeak elkarri pot eman diote, halaxe dio Salmistak, eta egungo mundu egoeraren aurrean horixe bera desiatuz hasiera eman nahi nioke hemen ene saio xume honi. Alegia, zubereraz idatzirik dagoen eta Axularren garaikotzat jotzen dudan hitz horiek beraxe darabiltzan sermoi baten aurkezpenari.

Hala bada, hau hemen agertzearekin batera ohar batzuk nahi nituzke eman euskal sermoigintzaren inguruan baliagarri gerta daitezkeelakoan, bai euskal literatur erlijiosoaren, bai euskal erretorikaren bai eta euskararen historiarako.

Jakin, badakigu Goi Erdi Aroan Karlomagno enperadoreak "Capitulares" edo Buruxkak dei ditzakegun agirieta predikuak herriak konprenitzeko eran egitea gomendatzen zuela¹, hau da, herriaren hizkuntzan egitea, eta Erdi Aroan sermoi guztiak, latinez idatziak zirenak barne, Frantzian batik-bat frantsesez ematen zirela, bakarrik apezgoari zuzenduak eginik latinez.

Baina zenbait lurraldetan beste hizkuntzarik ere mintzatzen baitzen, ezagunak dira, adibidez, okzitanierazko sermoiak, eta Geneviève Hasenohr-ek dioskunez², ageri direnak garaiko hizkuntza lekukorik zuzenenak bezala, ohikoa zelarik beste lekutan bezala sermoi bildumak egitea urte guziko elizkizuntan erabil zitzaten. Ez da harritzeko ikustea, beraz, XV. mendearen erdialdean inprimategia sortu zenez geroztik, kontutan hartzen badugu Eliza Katolikoak predikuari ematen zion garrantzia, *Artes praedicandi...* delakoak moldiztegitatuak, eta erretorikaren historia liburuetan³ gaia ukitzen duten ehunka titulu irakur daitezke XVI-XVII. mendeetan argitaratuak. Adibidez, Erdi Aroan eta geroago ere ospetsua izango zen Alain de Lille deitu teologo eta Pariseko Unibertsitatean errektore izan zenak (Lille, - Cîteaux, 1203) *Summa de arte praedicatoria* idatzi zuen⁴, egile ezezagun batek *Tractatus de modo discendi ... seu de modo praedicandi*⁵ bat plazaratu Leipzig-en XV. mende bukaeran, eta Etienne Hoert jaunak⁶ Strasbourg-en 1513an beste *Modus praedicandi...* bat moldiztegitatu zuen.

Liburu hauek, noski, aski arrakastatsuak eta garaiari egokituak izaten ohi ziren, eta horien bitartez azter dezakegu nolako erretorika zerabilten apezkek beren sermoietan, eta garaia ezagutzeko ere baliagarri gerta dakizkiguke, Louis Mourin-ek⁷ Jean Gerson (Gerson, 1363 -

¹ Albert Lecoy de la Marche, *La chaire française au Moyen Âge*. Slatkine reprints, Genève, 1974, 235 urr.

² Geneviève Hasenohr, "La prédication aux fidèles dans la première moitié du XIIe siècle. L'enseignement des "sermons limousins", *Romania*, T. 116, Paris, 1998, 34-72.

³ José Antonio Hernández Guerrero & M^o del Carmen García Tejera, *Historia Breve de la Retórica*. Ed. Sintesis, Madrid, 1994.

⁴ Migne, T. 210, col. 110-198.

⁵ An., *Tractatus de modo discendi et docendi ad populum sacra seu de modo praedicandi*. Martinus Herbipolensis. Leipzig, s. XV.

⁶ Etienne Hoert, *Modus praedicandi subtilis et compendiosus*. Strasbourg, 1513.

⁷ Louis Mourin, *Six sermons français inédits de Jean Gerson. Étude doctrinale et littéraire suivie de l'édition critique et de remarques linguistiques*. Paris. J. Urin, 1946.

Lyon, 1429) teologo eta predikariaren sermoiak aztertuz erakusten digun bezala. Hots, zerabiltzaten aipamen, erretrau eta *exempla*-k, alegia, ixtorioak garaiko pentsamoldeen, burutazioen berri eman diezaguketela beste literatur testuak baino areago.

Erljio ordenen artean, Jesuiten presentzia eta arrakasta XVI-XVII. mendeetan izaugarria izan zen, noski, hala irakaskintzan nola predikazioan, batipat bere *Ratio studiorum* delakoa zela medio, zeinek Humanitateen estudioari garrantzi handia ematen baitzion eta hauen artean bereziki Erretorikari, zientziarik nobleena bezala. Ondorioz beren eragina predikazioan ere handia izan zen. Eta bidenabar idatzi zituzten oratoriaz liburu aski, adibidez, Bartolome Bravok *De arte oratoria*⁸ ospetsua plazaratu zuen eta Aita Reggiok *Orator Christianus* ezaguna.

Gure esparrura, hau da Euskal Herrira gatzelarik, eta zehazkiago Axularren garaiko sermoigintza aztertzeraz, ez dago dudarik honek garrantzi izugarria izan zuela Trentoko Kontzilioaren ondoren, apezpikuen sinodalek adierazten diguten bezala herriaren heziketa katolikoan ezinbestekotzat jotzen baitzen.

Jakin, badakigu nola Baigorriin sortu zen Bertrand d'Etchauzek (1557-1645), Henri IV.aren kontseilari eta kapellauak eta geroago Baionako apezpikuak, Axularren babesle izan zenak, zioetenez, kortesau baten hizkeraz areago mintzo zena apezpiku hizkeraz baino, Baiona utzi eta Tours-era joatea eskatu zuelarik, hiri honetan katedrala izugarri dotoretzeaz eta apaintzeaz gain *Maison de l'Oratoire* delakoa sortu zuela.

Ezaguna da bestalde, Axularrek berak lehenik fama eta ospea predikari moduan izan zuela Henri IV.aren gutun batean nabarmentzen den bezala, *il a presché la parole de Dieu au gré et contentement de l'évesque et gens de bien du dit pays*⁹, alegia, Jainkoaren hitza hedatu duela apezpikuaren gogo eta kontentamenduaren arabera hala nola aipatu herriko jende onen gustora. Halaber, 1611. urtean badakigu Lancre eta sorginkeriaren arazo triste haren ondoren, non zapirehun pertsonak baino gehiago bizia galdu zuten, zenbait apaiz barne, egoera baretzeko erreginak predikari onak euskaldunei bidaltzea zela erabaki zuela eta hauek aurkitzea Aita Coton jesuitaren esku utzi zuela¹⁰.

Axular ez ezik izan ziren beste euskal predikari ospetsuak hamazazpigarren mende honetan, eta beste anitzen artean hauexek leudeke: **Soccarro** delako bat, **Joanes Haramburu** saratarra, *Deboçino escuarra, miraila eta oracinetegua...* (Bordele, 1635) liburuaren egile frantziskotarra predikari gisa aipatua, **Bernard Gasteluzar** ziburutarra jesuita, predikari Baionan 1656an, baina jansenisten harrera gaitzaren aitzinean Oloron aldera joan zena eta hemengo apezpiku Maitye jaunarekin 1672an Zuberoa osoari bisita egin ziona¹¹ eta *Eguia Catholicac...* bertso liburuaren egilea (1686). Zuberotarren artean baziren Hugues Dedieu-k¹² esaten digunez hainbat predikari frantziskotar euskaldun, hala nola, Nikolas ozatarra Maulen 1680an hila, Basile ozatarra hau ere, Akizen 1693an hila, Frantzisko delako bat, mauletarra eta

⁸ *De arte oratoria, ac de eiusdem exercendae ratione Tullianaque imitatione, varia ad res singulas adhibita exemplorum copia libri quinque.* Auctore Bartholomaeo Bravo è Societate Iesu. MDXCVI.

¹⁰ Luis Villasante, 1972, *Axular. Mendea. Gizona. Liburua.* Jakin, Oñate, 74.

¹¹ Athanase Belapeyre, "Itinéraire très détaillé de la visite de M. de Maytie en Soule en 1672", *Etudes religieuses de la diocèse de Bayonne.* 1900.

¹² Hugues Dedieu, "Franciscains et Capucins originaires des provinces basques de Labourd, Basse-Navarre et Soule. Essai de répertoire chronologique (XVVe siècle - début XXe siècle)", *Bulletin du Musée Basque*, n1 81-82, 1978, 109-182.

idazlea, erlijio liburu bat idazteaz gain, inprimategiko berrikuntzaz idatzitakoa¹³ edota Jose-Maria mauletarra eta Baionan 1719an hila.

Eta iparraldeko ez soilik ez mintzatzearren Solarte, zeinek Donostian 1621an igande arratsaldetan denen probetxu eta gusto handiz predikatzen omen zuen euskaraz, eta, hain zuzen, 1628ko Garizuma iristean jesuiten eleiza igande arratsaldetan hainbeste jendetzaz betetzen zen non denak bertan sartu ezinik eskatu zuten Santa Mariako elizan jarraikitzea sermoiekin, egin omen zena denen arimen probetxu handiz¹⁴. Baina prediku luzeak zirenean, Zuberoan bederen, Belapeyrek¹⁵ zioen bezala, jende xumeari loakarratzeko gehiago balio zioten misterioak konpreniaratzeko baino:

predicu lucez baino ihikiago eta hobeki, çoin genté chehec ençun beçain sarri ahazten baitutié, ceren bortu arté hoyetan gouré Laborari eta Cabaleçain gachoac lanez akhituric, hen espiritiac hain sortha eta lamputs guerthatcen baitira, non hoboroetan Predicu handiec eliçan lehen loeraziten baitutie eciz iratçartcen misterio barmen hartceco.

Ingurune honetan bada beharko genuke kokatu ondoren aipatuko dugun eta aztertzerako goazen sermoia.

Eskuzkribuak 22 zentimetroko hiru folio betetzen ditu bi aldetatik idatzirik, eta Koldo Mitxelena Kultur uneko Urkixo fondoan 6654 zenbakia darama, eta honako hitzak ditu karpetatxoak, *MS que me regaló Jean de Jaurgain*¹⁶. Hizkia irakurtzeko aski zaila zuenez horrelako idazkiekin ohiturik dauden paleografia irakasleengana jo nuen, hain zuzen, José Manuel Fradejas eta Blas Casado UNED-eko doktoereengana. Lehenak esan zidanez, XVI. mende erdialdeko testuak arakatzeko ibili berria zelarik Iruñean hizki aski berdintsua topatu omen zuen. Bigarrenak XVI. mende bukaerako edo XVII. mende hasierakoa zitekeela. Bestalde, Jean Baptiste Orpustan, erdi aroko testuetan aditua den irakasle jaunari ere kontsulta egin nion, eta honek Axularren garaikotzat eman zitekeela adierazi zidan.

Egia esan niri, paleografian aditua ez naizelarik, testuak lanak eman dizkit irakurtzeak eta transkribitzeak, eta ez nago batere ziur irakurketa beti zuzena egin dudarik. Dena den, hurrengo irakurleci zertxobait bidea erraztu diedalakoan nago. Nere uste apalez grafiak eta hizkera aztertutik Bertrand Zalgizekoaren edota Ivan Tartasenarekin antza gehiago dauka testuak Athanase Belapeyrenen idatziekin baino, hau da mende hasieratik edo erditsutik hurbilago legokeelakoan nago mende bukaeratik baino, eta aski urrun gelditzen da bai estiloz bai eta hizkeraz Francisco Ondarrak¹⁷ argitaratu 1729ko euskaraz idatzitako lehen sermoi nafarretik.

XVI. mendean Leizarragak ete bere laguntzaileek itzulpenetan grafia sistema guztiz koerente bat sortu zuten, baina erlijio gerren ondorioz ez zuen arrakasta gehiegirik ukan,

¹³ François de Mauléon, *Méthodes: pour bien faire la confession générale, pour bien prier et faire oraison, pour catéchiser les ignorants, pour perséverer dans la grâce de Dieu.* - , *L'esprit de l'orthographe universelle, contenant la réunion de toutes les langues par un seul caractère.* Paris, Antoine Chrétien, 1693.

¹⁴ J. L. Malaxetxebarria, "Gotzain Jaunaren Aginduatzaz", *Jesus'en Biotzaren Deia*, Donostia, 1924, 84, n.2.

¹⁵ Athanase Belapeyre, *Catechima Laburra eta Jesus-Christ goure ginco jaunaren eçagutçia, salvatu içateco.* (1696) Ed. kritikoa, J. L. Davant. Euskaltzaindia, Bilbao, 1983,

¹⁶ Jean de Jaurgain, (Ozaze, 1842 - Ziburu, 1920), kazetari, historialari eta literatur kritikari. Karlistadetan parisko aldizkari baterako idazten zuen bitartean Iruñeko artxiboak miatu zituen. Hainbat liburren egilea da: *Arnaud d'Oihenart et sa famille*, 1885, *La Vasconie: étude historique et critique*, 1886; *L'évêché de Bayonne et la légende de Saint-Léon*, 1917...

¹⁷ Francisco Ondarra, "Primer sermón en vascuence navarro (1729)", *Fontes Linguae Vasconum*, n1 38, 1981, 147-175.

tamalez. XVII. mende hasieran Materrek lanak izango ditu Saran ikasi zuen euskara konbentzio logikoz islatzea, Axular bera sortu zen aniztasunaren oihartzun egingo delarik. Dena den

Oihenart hartu beharko genuke ortografi arauemaile aitzindari gisa, atsotitzei eta neurtitzei ezarri "De l'Orthographe Basque" deitu oharretan, ez du, ordea, gure sermoilariak ohar horiek.

Tartasek bezala /u / eta /ü / fonemak adierazteko < ou > digrama eta < u > grafemak erabiliko ditu, hala: *goure, gincoua, ourte, celuco, paradussu, çuhur*...Badu hitz bukaeretan bokala ixteko jaidura, Detxepare eta Oihenartek bezala hala, adibidez kasu hauetan:

- e + -a > -ia : *beccatoriac, indignationiac, nombrian, bercia*...
- e + -e > -ie : *dutiellaric, ...*
- u + -a > -ia : *mundiaren, paradussia, santificatia, ...*
- u + -e- > -ie- : *cien, santien, ...*

Leherkari belare hasperendunari dagokionez, hots, /k/ fonemaren aldaerari buruz adierazi behar dugu gertuago dagoela Detxeparengandik Tartasengandik baino, adibidez, kasu honetan:

< cc > : *beccatore guira eta mira eztaquigula* (Detxepare, XIII, 25)
beccatoria cer eguinen duc (Sermoia, f.3v)

< kh > : *bekhatoria eta bekhatoressa cier mintço niz* (Tartas, 12)

Halaber - ki duten adberbioetan ematen ohi da berdintasun handiagoa Detxepareekin Belapeyreekin baino:

< qu > : *salvatuyac ieyncoarequi bethi alegueraqui* (Detxepare, I, 374)
rigourousqui gastigatceco (Sermoia, f. 3r)

< k > : *perestuki biciric ere* (Belapeyre, Hitzaurrea)

Ez dago, noski grafietan koerentzia osoa grafietan, gure irakurketan bedere honako hitz beraren aldaerak ateratzen baitzaizkigu : *erho* (f. 1r, l. 16) eta *ero* (f. 1r, l. 32); *berhalla* (f. 1v, l. 71) eta *berehalla* (f. 2r, l.1), *geischi* (f.2v, l. 155) eta *geissy* (f. 2v, l. 134)...

<r-> , hots, dardarkariak aurki daitezke hitz hasieran inolako bokal eransketarik gabe, adibidez: *representatcen* (f. 1r, l. 27), *revoltatcen* (f. 1v, l. 47), *ruinala* (f. 1r, l. 14)...

Eredu latinoaren eta frantsesaren eraginak, beraz, ageri zaizkigu nabarmenki hurrengo etsenpluetan bezala: *scriptura* (f. 1r, l. 15), *spiritu* (*psalmistak* (f. 1v, l. 43), *mysterio* (f. 1r, l. 23), *Zacharie* (f.1v, l. 59), *San Hyeroni*.. (f. 1r, l. 19), *St. Augustic* (f. 1v, l. 75)...

Morfologiari dagokionez azpimarratzeko da deklinabideko (*-eri, -ganik, -la, -tarik, ...*) bereizgarriez kanpo , ageri den 'ore' izen-lagun genitiboa (*impossible içanen ceic ore beccatien gordatcea*, f.3v, l. 206) zein Maisterrengan eta Beñat Mardoren kopletan 'hire' bilakaturik den. halaber, *dreicu* eta *dreiquie* aldaerek pentsatzera garamatzate XVII. mende hasierakoa daitekeela testua.

HIZTEGIA

ABERE

- aberen (f. 2v, l. 122)

ADAN

- Adam (f. 3v, l. 196)

ADBERTITU

- advertitcen (f. 1r, l. 13)

AFEKZIONE

- affektionen (f. 1r, l. 26)

AGERTU

- aguertu (f. 1r, l. 5)

AGRADABLE

- agradablea (f. 2v, l. 151)

AHAL

- ahal (f. 3r, l. 189)

AINITZ

- ainitz (f. 1r, l. 4)

ANGURU

- ainguriez (f. 1v, l. 76)

AITORTU

- aitortcera (f. 2r, l. 97)

AITZIN

- aitcinian (f. 3v, l. 205)

AKABI
 - acabiez (f. 2v, l. 122)
 AKZIONE
 - actioneren (f. 1v, l. 49)
 ALARMA
 - alarmatan (f. 1r, l. 13)
 ALDE
 - alde (f. 1r, l. 13)
 ALTXATU
 - altchatu (f. 1v, l. 44)
 AMA
 - ama (f. 2v, l. 119)
 AMUREKATIK
 - amourecatic (f. 2r, l. 80)
 ANDRE DENA MARIA
 - andre dena Mariaz (f. 2v, l. 154)
 ANIMAL
 - animal (f. 2r, l. 108)
 APREHENDITU
 - aprehenditcen (f. 1v, l. 44)
 ARAUZ
 - araus (f. 3v, l. 220)
 ARGİ
 - arguia (f. 1v, l. 74)
 ARGIZAGI
 - arguiçaguia (f. 1r, l. 4)
 ARIMA
 - arima (f. 2r, l. 94)
 ARRASU
 - arrasou (f. 1v, l. 40)
 ARREBA
 - arreba (f. 2v, l. 148)
 ARTE
 - artian (f. 1v, l. 53)
 ASOZIAZIONE
 - asociacionebat (f. 2v, l. 148)
 ASTRE
 - astre (f. 3r, l. 174)
 ATRAPARAZI
 - attraparacitcen (f. 2r, l. 101)
 AUGUSTI
 - St. Augustic (f. 1v, l. 75)
 AZALI
 - açalia (f. 2v, l. 131)
 AZKARKI
 - ascarqui (f. 1r, l. 16)
 AZKEN
 - asquen (f. 1r, l. 21)
 BADA
 - bada (f. 2v, l. 148)

BAIZIK
 - baici (f. 2r, l. 88)
 BALANTZA
 - balantçan (f. 1v, l. 42)
 BALE
 - valian (f. f. 3r, l. 192)
 BALIATU
 - balia eneçaçun (f. 3v, l. 220)
 BAT
 - batez (f. 1r, l. 12)
 BEGI
 - beguiac (f. 1v, l. 61)
 BEGIRAZALE
 - beguiraçaliac (f. 2v, l. 144)
 BEGITARTE
 - beguitarte (f. 1v, l. 61)
 BEHAR
 - behar (f. 1r, l. 21)
 BEIRE
 - beyrebat houragatic (f. 3v, l. 231)
 BEKHATORE
 - beccatoriac (f. 1r, l. 22)
 BEKHATU
 - beccatiac (f. 1r, l. 7)
 BELDUR
 - beldurrequi (f. 1v, l. 68)
 BELSTU
 - belsturen (f. 1r, l. 11)
 BENA
 - bena (f. 1r, l. 31)
 BENGATU
 - vengatcea (f. 1r, l. 3)
 BERA
 - berac (f. 3v, l. 213)
 BER(E)HALA
 - berhalla (f. 1v, l. 72), berehalla (f. 2r, 78)
 BERE
 - bere (f. 1r, l. 2)
 BERTUTE
 - bertutiac (f. 3v, l. 215)
 BERTZE
 - bercia (f. 1r, l. 16)
 BESTE
 - bestera (f. 1r, l. 22)
 BETE
 - bete (f. 1r, l. 12)
 BETI(ERE)
 - betiere (f. 2r, l. 79)

BEZALA
 - beçalla (f. 2r, l. 105)
 BI
 - by (f. 1r, l. 15)
 BIHOTZ
 - bihotçaren (f. 1r, l. 24)
 BIZI
 - biciaren (f. 1v, l. 41)
 BLASPHEMA
 - blasphemac (f. 1v, l. 55)
 BORONTATE
 - borontaten (f. 1r, l. 25)
 BORTU
 - bortiac (f. 2v, l. 138)
 BORTZ
 - borz (f. 2r, l. 84)
 BURUZAGI
 - buruçaguiaren (f. 3v, l. 223)
 BUXI
 - bougibat (f. 3v, l. 231)

 DALIBAD
 - Dalibaden (f. 2r, l. 101)
 DANTE
 - Dante (f. 1r, l. 36)
 DEITU
 - deituruc (f. 3v, l. 196)
 DENA
 - denen (f. 1v, l. 70)
 DESIRATU
 - desiratcen (f. 1r, l. 14)
 DESKARGATU
 - descargatcea (f. 1r, l. 4)
 DETESTAZIONE
 - detestationetan (f. 3r, l. 176)
 DEUS
 - deus (f. 1r, l. 111)
 DIBISATU
 - divisatu (f. 1v, l. 73)
 DIO (ik. ERRAN)
 DOKTOR
 - doctor (f. 1r, l. 13)
 DOLORE
 - doloria (3v, l. 230)
 DURUNDA
 - durunda (f. 2r, l. 101)

 EBANGELIO
 - evangeliouac (f. 1r, l. 13)
 EDER
 - eder (f. 1r, l. 10)

*EDIN
 - estetiala (f. 1r, l. 34), estadin, guintian,
 *EDUN
 - cian (f. 1r, l. 3), cianian, cialaric, dut, duc,
 du, duçu, duçic, duic, dituc, dutu, dutuçu,
 dutuie, beitu, citic, çitiçu, dutuquec, dien,
 dian, diala, dialaric, estialaric, estiçu,
 dutielaric, etcielaric, beitecian, dion, dreicu,
 esteitadacie, gutu, guntiala, niqueçu,
 EFORT
 - effortac (f. 2r, l. 91)
 EGIA
 - eguiaren (f. 1r, l. 29)
 EGILE
 - eguiliac (f. 3v, l. 215)
 EGIN
 - eguiten (f. 1r, l. 31)
 EGINAHAL
 - eguin-ahal (f. 1r, l. 31)
 EGIPTA
 - Egipta (f. 1r, l. 5)
 EGITEKO
 - eguitecouac (f. 2v, l. 127)
 EGON
 - egon (1r, l. 5), çagouelaric
 EGOTZI
 - egotciren (f. 2v, l. 137)
 EGUN
 - egunez (f. 1r, l. 5), egunco...
 EITZI
 eiticcen (f. 1v, l. 53)
 EKI
 - equia (f. 1r, l. 4)
 EKLESIASTIKO
 - ecclesiasticouac (f. 1r, l. 15)
 EKLIPSATU
 - eclipsaturen (f. 1r, l. 11)
 EKLIPSE
 - ecclipsen (f. 2v, l. 121)
 ELE
 - eliac (f. 3r, l. 166)
 ELIZA
 - eliça (f. 2v, l. 119)
 EMAN
 - emaiten (f. 1v, l. 2)
 ENE
 - ene (f. 1v, l. 45), eni (f. 3v, l. 229)
 ENPELTATU
 - empeltaturuc (f. 3v, l. 202)
 ENTELEGAMENTU
 - entelegamentiac (f. 1r, l. 14)

ENTELEGATU
 - entellegatu (f. 1r, l. 31)
 ENTZUN
 - ençuten (f. 2r, l. 104)
 ERAKARRAZI
 - eracarracitcen (f. 2r, l. 117)
 ERAKATSI
 - eracastendu (f. 1r, l. 31)
 ERACUTSI
 - eracutssi (f. 1r, l. 3)
 ERATSI
 - eratsirenda (f. 3v, l. 216)
 ERAZATU (?)
 - eraçatu (f. 3r, l. 193)
 ERE
 - ere (f. 1r, l. 29)
 EREKARRARAZI
 - erecarraracitceco (f. 3r, l. 188)
 ERETZI
 - eretcin (f. 2v, l. 133)
 ERI
 - eri (f. 2r, l. 89)
 ERIDEN
 - erideiten (f. 2r, l. 92)
 ERITARZUN
 - eritarçunetan (f. 2r, l. 90)
 ER(H)O
 - erho (f. 1r, l. 16), ero (f. 1r, l. 32)
 ERORI
 - eroriren (f. 1r, l. 20)
 ERRAN
 - erraiten (f. 1r, l. 22), dio
 ERRAILE
 - errailiac (f. 3v, l. 214)
 ERRENDATU
 - erendatu (f. 1v, l. 49)
 ERREPRESENTATU
 - errerepresentatcen (f. 1v, l. 63)
 ESKEINI
 - esqueini (f. 3v, l. 229)
 ESKU
 - esquietara (f. 2v, l. 132)
 ESKUIN
 - esquinez (f. 1r, l. 22)
 ESPARANTZA
 - esparançatan (f. 2r, l. 93)
 ESTATU
 - estatu (f. 2r, l. 94)
 ESTONATU
 - estonatceco (f. 3r, l. 187)
 ETA

- eta (f. 1r, l. 17)
 ETCUNIAN (ik. *EDUN)
 ETXE
 - etchen (f. 2v, l. 131)
 EXPRIMATU
 - exprimatcen (f. 2v, l. 141)
 EZAGUTU
 - eçagutciac (f. 1v, l. 71)
 *EZAN
 - deçaque (f. 2v, l. 128), eneçaçun, eçaçie,
 ditçanian, ditçenian.
 EZARRI
 - eçarten (f. 1r, l. 17)
 EZI
 - ecy (f. 1r, l. 23)
 EZKER
 - esquerrian (f. 1r, l. 22)

 FAVORABLE
 - favorable (f. 2r, l. 104)
 FABORE
 - favoriac (f. 3r, l. 157)
 FALSU
 - falsu peçu eguiliac (f. 3v, l. 214)
 FAXUS
 - faschous (f. 2v, l. 152)
 FURIA
 - furia (f. 3r, l. 189)

 GABE
 - gabe (f. 2r, l. 103)
 GABETARIK
 - gabetariac (f. 1r, l. 3)
 GAI
 - gaiac (f. 3r, l. 169)
 GAIN
 - gaignen (f. 1r, l. 3)
 GAINELATIKO
 - gaignelatico (f. 2v, l. 123)
 GAIZA
 - gaiça (f. 1v, l. 47)
 GAIZKI
 - gaisqui (f. 1r, l. 37)
 GAIZTO
 - gaistouac (f. 1v, l. 47)

 GALDU
 - galduren (f. 3r, l. 181)
 GASTIGATU
 - gastigatceco (f. 3r, l. 177)

GERREN
 - guerren (f. 2r, l. 82)
 GEZUR
 - gueçour errailiac (f. 3v, l. 214)
 GIZON
 - guiçonon (f. 1r, l. 7)
 GLORIA
 - gloria (f. 3v, l. 232)
 GOBERNATU
 - gobernatcea (f. 2v, l. 150)
 GOGO
 - gougoua (f. 2v, l. 127)
 GOITI
 - goity (f. 3r, l. 162)
 GORDATU
 - gordatcera (f. 3v, l. 1979)
 GORDE
 - gorderen (f. 1r, l. 10)
 GORRITU
 - gorrituren (f. 3r, l. 172)
 GOSE
 - gosse (f. 3v, l. 228)
 GRAZIA
 - gracia (f. 2v, l. 142)
 GURE
 - goure (f. 1r, l. 2)
 GUTI
 - gutiago (f. 1v, l. 1)

HA
 - ha (f. 1v, l. 54)
 HAIEK
 - hayec (f. 1v, l. 64)
 HAIETARIK
 - haietaric (f. 2r, l. 88)
 HAIN
 - hain sarri (f. 2r, l. 86)
 HAITATU
 - haitatu (f. 2r, l. 84)
 HALA (NULA)
 - halla noulla (f. 1r, l. 23)
 HAN
 - han (f. 1v, l. 52)
 HANBAT
 - hambat (f. 2r, l. 104)
 HANDI
 - handitan (f. 1r, l. 6)
 HANDITARZUN
 - handitarçuna (f. 1v, l. 2)
 HANITZ

- hanits (f. 1r, l. 4)
 HARAT
 - harat (f. 2r, l. 82)
 HAREN
 - haren (f. 1r, l. 3)
 HARENTAKO
 - harentaco (f. 2r, l. 109)
 HARK
 - harc (f. 1r, l. 36)
 HARRI
 - harribat (f. 1v, l. 60)
 HARTAN
 - hartan (f. 2v, l. 124)
 HARTARA
 - hartara (f. 2r, l. 105)
 HARTU
 - hartu (f. 2v, l. 130)
 HASTIO
 - hastio (f. 2r, l. 100)
 HATSARRE
 - hatsarrian (f. 1v, l. 78)
 HELTU
 - helturen (f. 3r, l. 175)
 HENOCH- Henoch (f. 2r, l. 83)
 HERRI
 - herria (f. 1r, l. 6)
 HIEROSME
 - Hyerosmec (f. 1r, l. 19)
 HIRE
 - hire (f. 3v, l. 195)
 HIRUR
 - hirour (f. 1r, l. 5)
 HITZ
 - hits (f. 1r, l. 13)
 HOBEDI
 - hobequi (f. 2r, l. 92)
 HOBORO
 - hoboro (f. 1r, l. 33)
 HOGEI
 - hoguey (f. 2r, l. 83)
 HOIEK
 - hoiec (f. 1r, l. 20)
 HOLA
 - hola (f. 3v, l. 221)
 HON
 - hon dena (f. 2r, l. 109)
 HONTAN
 - hontan (f. 1v, l. 67)
 HORI
 - hori (f. 1v, l. 70)
 HORO

- horo (f. 2r, l. 93)
HUNEK
- hounec (f. 1r, l. 23)
HUNEN
- hounen (f. 2r, l. 108)
HUILENDANIK
- huillendanic (f. 1v, l. 68)
HURA
- hourac (f. 1r, l. 10)
HUR
- houragatic (f. 3v, l. 231)

IA

- ia (f. 2r, l. 89)
IDOKI
- idoquitia (f. 1v, l. 57)
IGARAN
- igaran (f. 1v, l. 45)
IKARARAZI
- icararacirendu (f. 2v, l. 137)
IKARATU
- icaraturen (f. 2v, l. 125)
IKUSARAZI
- icousaracirendu (f. 1r, l. 9)
IKUSI
- icoustiaren (f. 1v, l. 57)
IMAJINAZIONE
- imaginacioneren (f. 1r, l. 24)
INDIGNAZIONE
- indignationiac (f. 1r, l. 8)
INGRAT
- ingratac (f. 3v, l. 228)
INJUSTU
- injustouac (f. 3v, l. 202)
INKLINAZIONE
- inclinacionen (f. 1r, l. 26)
INPIETATE
- impietaten (f. 1r, l. 3)
INPOSIBLE
- impossible (f. 3v, l. 205)
INSEPARABLE
- inseparableen (f. 2v, l. 148)
INSUPPORTABLE
- insuportabilia (f. 3v, l. 226)
INTERPRETATU
- interpretatcen (f. 1r, l. 20)

IRABAZI

- irabaci (f. 2v, l. 145)
IRATZARRI

- iratçartcen (f. 2v, l. 120)
ITSASO
- itsassouaren (f. 2v, l. 122)
IZAN
- ciren (f. 1r, l. 5), cen, cela, cenetic, iz, da,
beita, esta, date, dela, dena, denian, dira,
beitira, diren, direnac, direnian, direla,
direlaric, etcelaric, beitcen, etciren, beitie,
ceic, beitceic, ceio, ceie, izanen

IZAR

içarrac (f. 1r, l. 5)

JAN

- jatera (f. 3v, l. 229)

JARRI

- jartceco (f. 1r, l. 28)

JAUN

- jaun (f. 1v, l. 2)

JEITSI

- geissy (f. 2v, l. 134)

JENDE

- gendiery (f. 1r, l. 8)

JENTATE

- ientaten (f. 1r, l. 3)

JESU KRIST(O)

- Jesus Christ (f. 1v, l. 63), Jesu Christoren (f. 2v, l. 154)

JIN

- ginen (f. 3v, l. 209)

JINKO

- ginco (f. 1r, l. 2)

JO

- jo (f. 3v, l. 196)

JOAN

- jouaiten (f. 2r, l. 106)

JOB

- Job (f. 1v, l. 67)

JOSAPHAT

- Josaphateco (f. 3r, l. 192)

JUGAMENTU

- jugamentien (f. 1r, l. 8)

JUGATU

- jugaturen (f. 2r, l. 80)

JUJE

- jugia (f. 1v, l. 64)

JUSTIZIA

- justiciaren (f. 1r, l. 33)

JUSTU

- justouac (f. 3v, l. 212)

KANDELA
- candela (f. 1r, l. 10)
KITATU
- quittatcendutu (f. 1r, l. 32)³
KOLERA
- coleraren (f. 1r, l. 3)
KONDEMNATU
- condemnaturenda (f. 3r, l. 181)
KONDUSITU
- condustitia (f. 2v, l. 119)
KONKLUDITU
- concluditu (f. 1r, l. 9)
KONSENTITU
- consentitu (f. 1r, l. 3)
KONSIDERATU
- consideratcen (f. 1r, l. 30)
KONSTRENT
- constraint (f. 2v, l. 133)
KONTATU
- contatcen (f. 1v, l. 69)
KONTENTAMENDU
- contentamentiac (f. 2r, l. 112)
KONTRARIO
- contrarioua (f. 1r, l. 31)
KONTRE
- contre (f. 1v, l. 48)
KONTU
- conturuc (f. 1v, l. 46)
KREATU
- creatu (f. 2r, l. 82)
KREAZALE
- creaçaliac (f. 1v, l. 73)
KRIMINEL
- criminela (f. 2v, l. 130)
KRISTIANO
- christianouac (f. 3r, l. 162)
KURUTXE
- curutchecho (f. 3v, l. 199)

LANTATU
- lantatu (f. 3v, l. 202)
LEHEN
- lehen (f. 1v, l. 73)
LEKU
- lecutaric (f. 1v, l. 60)
LIBERTATE
- libertatian (f. 1v, l. 53)
LOTSA
- lotsaz (f. 1r, l. 33)
LOTSAGARRI
- lotssagarriric (f. 1r, l. 4)

LUR
- lurreco (f. 2r, l. 78)

MAIESTATE
- maiestatia (f. 1v, l. 1)
MAITE
- maite (f. 2r, l. 100)
MALER
- malheurrac (f. 2r, l. 113)
MANU
- maniac (f. 2r, l. 1)
MARADIKATU
- maradicaturen (f. 3r, l. 170), maradicatiac
(f. 3v, l. 228)
MARIA
- Maria (f. 2v, l. 154)
MEDIZI
- mediciac (f. 2r, l. 92)
MINTZATU
- minçatu (f. 2r, l. 86)
MIRAKUILU
- miracuillu (f. 2r, l. 85)
MISERABLE
- miserabliac (f. 3r, l. 190)
MISERIKORDIA
- misericordiasco (f. 2v, l. 146)
MISTERIO
- mysterio (f. 1r, l. 23)
MITILA
- mitilarenac (f. 3v, l. 224)
MUNDU
- mundiaren (f. 1r, l. 6)
MUSIKA
- musica (f. 2r, l. 100)

NAHI
- nahi (f. 1r, l. 7)
NATURA
- natura (f. 2r, l. 91)
NI
- nic (f. 1r, l. 14)
NON
- non (f. 1r, l. 21)
NONBRE
- nombrian (f. 1r, l. 27)
NULA
- noulla (f. 1r, l. 37)
NURK
- nourc (f. 1r, l. 29)

OBRA

- obren (f. 1v, l. 41)
 OBTENITU
 - obtenitcea (f. 3v, l. 211)
 ODEI
 - f. 1v, l. 53)
 OFENSATU
 - offensatcen (f. 3r, l. 180)
 OGEN
 - oguenic (f. 3r, l. 175)
 OGENDURU
 - oguenduruc (f. 3r, l. 174)
 OGI
 - ogui bougibat (f. 3v, l. 230)
 OHARTU
 - ohart (f. 1r, l. 34)
 OIHU
 - oihu (f. 2v, l. 138)
 ONSA
 - onsa (f. 1r, l. 31)
 OMNIPOTANT
 - o(mn)ipotentac (f. 1r, l. 2)
 ORANO
 - orano (f. 2r, l. 87)
 ORDU
 - orduz (f. 1r, l. 2)

 ORDIAN
 - ordian (f. 2r, l. 91)
 OREIN
 - oreignec (f. 2r, l. 100)
 ORO
 - orotan (f. 1r, l. 4)
 OSAGARRI
 - ossagarria (f. 2r, l. 99)
 OSTO
 - ostouac (f. 2v, l. 124)
 OTIAN
 - otian (f. 3v, l. 194)
 OTOITZ
 - otoitciac (f. 3r, l. 158)

 PARADUSU
 - paradussiaren (f. 2r, l. 117)
 PASIONE
 - passionez (f. 3r, l. 159)
 PE
 - piala (f. 3v, l. 197)
 PENA
 - pena (f. 2r, l. 103)
 PENITENTZIA
 - penitentciatara (f. 2r, l. 117)

PENSATU
 - pensatcen (f. 1v, l. 40)
 PERSONAJE
 - personage (f. 1r, l. 16)
 PEZU
 - peçouas (f. 2v, l. 135)
 PHARAON
 - pharaonen (f. 1r, l. 2)
 PIZATU
 - piçatceco (f. 1v, l. 42)
 PLAZERAK
 - plaserac (f. 2r, l. 111)
 PREDIKATU
 - predicatcia (f. 2r, l. 88)
 PREDIKATZALE
 - predicatçale (f. 2r, l. 85)
 PRESIDATU
 - presidaturen (f. 3v, l. 211)
 PRIMO
 - primo (f. 3r, l. 176)
 PRINTZIPALA
 - principala (f. 1v, l. 47)
 PROBIDENTZIA
 - providencia (f. 1v, l. 57)
 PROPHETA
 - propheta (f. 1v, l. 59)
 PSALMISTA
 - psalmistac (f. 2v, l. 141)
 PUNTU
 - puntiala (f. 2r, l. 102)
 PUXANTZA
 - puchança (f. 3v, l. 210)

 REBELAZIONE
 - revelacionez (f. 3v, l. 199)
 REBOLTATU
 - revoltatcen (f. 1v, l. 47)
 REFORMATU
 - reformatcera (f. 2r, l. 98)
 REFUJIO
 - refugio (f. 3v, l. 195)
 REGRETA
 - regretia (f. 3v, l. 230)
 REPRESENTATU
 - representatcen (f. 1r, l. 27)
 REPROBATU
 - reprobatién (f. 1r, l. 27)
 REPROTXU
 - reprotxhiac (f. 3v, l. 227)
 RESIGNATU
 - resignatcea (f. 1r, l. 25)

RESOLUTU
- resoluturic (f. 1r, l. 2)
RETEINTU
- retenituren iz (f. 3v, l. 195)
RETIRATU
- retiratcen (f. 2r, l. 116)
RIGURUS
- rigorous (f. 2v, l. 152)
RIGURUSKI
- rigorousqui (f. 1r, l. 7)
ROBUR (?)
- robour (f. 2r, l. 108)
RUINA
- ruinala (f. 1r, l. 3)

SAHETSA
- sahetsaz (f. 3r, l. 193)
SALUTATU
- salutacea (f. 1r, l. 14)
SALBARAZI
- salvaracitcen (f. 2r, l. 102)
SALBAZALE
- salvaçalia (f. 1v, l. 63)
SAN
- san (f. 1r, l. 19)
SANTA
- s(an)tan (f. 1r, l. 15)
SANTIFIKATU
- s(an)tificatiac (f. 1r, l. 21)
SANTU
- s(an)tien (f. 1r, l. 25)
SARRI
- sarri (f. 2r, l. 86)
SARTU
- sartu (f. 2v, l. 131)
SEKONDO
- secondo (f. 3r, l. 187)
SEKULA
- secula (f. 1v, l. 41)
SEME
- semien (f. 3r, l. 169)
SEPARATU
- separatcen (f. 1v, l. 77)
SEPARAZIONE
- separacione (f. 1v, l. 75)
SIGNIFIKATU
- significaturen (f. 1r, l. 23)
SIGNO
- signo (f. 1r, l. 4)
SINISTE- siniste (f. 1v, l. 67)
SKRIPTURA

- scriptura (f. 1r, l. 15)
SOGIN
- soguiten (f. 1v, l. 60)

SOLAMENTE
- solamente (3v, l. 214)
SPIRITU
- spiritu (f. 2v, l. 119)
SUBORNATU
- subornatubatec (f. 2v, l. 129)
SUPORTATU
- supportatcen (f. 3r, l. 189)

TENEBRA
- tenebra (f. 1r, l. 6)
TENPESTA
- tempesten (f. 2v, l. 122)
TERRESTRE
- terrestrian (f. 3v, l. 197)
TERRIBLE
- terrible (f. 3v, l. 216)
TRIBULAZIONE
- tribulacione (f. 3v, l. 226)
TRISTE
- tritez (f. 2v, l. 123)
TRONPETA
- trompeten (f. 2v, l. 121)

UHUIN
- ouhouiner (f. 3r, l. 182)
UKAN
- ucanen (f. 1r, l. 34)
UKATU
- ucaturen (f. 2v, l. 156)
UKITU
- uquiten (f. 3r, l. 167)
UME
- umen (f. 2r, l. 102)
URRATS
- urratsac (f. 1v, l. 69)
URRENDU
- urrentcian (f. 1r, l. 7)
URTE
- ourte (f. 2r, l. 84)
URTUKI
- ourtouquitcen (f. 1v, l. 61)
USTE
- ouste (f. 1r, l. 7)

UTSU
- ouste (f. 1r, l. 34)

UTZULI

- utçultcen (f. 1r, l. 28)

XAHATU

- chaturen (f. 3r, l. 159)

XERKATU

- chercatu (f. 1v, l. 50)

ZAKARIE

- Zacharie (f. 1v, l. 59)

ZAZPI

- çaspy (f. 1v, l. 60)

ZELU

- celuco (f. 1r, l. 10)

ZER

- cer (f. 1v, l. 54)

ZERBITZARI

- serbutçaria (f. 3v, l. 223)

ZERBUTZATU

- cerbutçatcen (f. 1v, l. 2)

ZEREN ETA

ceren eta (f. 1v, l. 40)

ZERGATIK

- cergatic (f. 3r, l. 171)

ZOIN

- çoin (f. 2r, l. 103)

ZU

- cien (f. 1r, l. 14)

ZUHAIN

- çuhain (f. 3v, l. 197)

ZUHUR

- çuhur (f. 1r, l. 16)

ZUHURTARZUN

- çuhurtarçun (f. 1r, l. 24)

ZUIN

- çuin (f. 1r, l. 29)

ZURE

- çoure (f. 2v, l. 144)

Nabarmen denez hitz zerrenda honetan mailegu ugari ageri dira, batik-bat latinetik, frantsesetik eta batzuk ere gaztelaniatik. Maizenik ageri zaigun hitza *ginco* da, 22 aldiz ageri dena, eta ondoren datoz: *beccatore* (14), *beccatu* (13), eta *ordian* (13)... Beraz, argi eta garbi dago direla biak Jainko eta bekataria sermoiarenean bi ardatz nagusiak. Eta predikatzailerak darabiltzan aipamenak testamentu zaharrekoak dira gehien bat : Psalmoak (5 aldiz, eta behin zenbakia oker emanez), Job (2 aldiz), San Lukas (3 aldiz), Genesia edo Etorquia behin, eta Zakarias beste batean. Elizaren aiten artean San Agustin eta San Jeronimo ditu aipatzen binaka aldiz, baina badu ere beste aipamen berezi bat, ez dena agertzen ez Axularren ez eta tartasen aipamen ugarien artean, hau da, Dante, zeinek Errenazimenduko kutsu bat ematen dion testuari, eta predikariari halako kultur jazkera modukoa, aski berezirik gelditzen dena konparatuz gero sermoi hau 1729ko goi-nafarrera hegoaldekoarekin.

Hau argumentazioaren moduan ere nabarmentzen da, adibidez erabiltzen duenean arrazoinak agertzeko hitzok: *Primo* (f. 3r, l. 176) eta *Secondo* (f. 3r, l. 187) . Urthubiek Axularren estiloaz dioena, alegia, *atque uberem authoris facundiam magna cum eruditione* , aberastasuna eta erudizioa bat dihoazela urdazubitarrarengan, berdintsua desakegu gura autore ezezagunaz, zein jesuitek maite zuten korrante asianista barnean koka dezakegun. Modu hau "kolore"en erabileran (deskripzioeak, errekurso patetikoak eta beste) hala nola *varietas ingeniorum* delakoan, hots, injenioen ugaritasunean, zeinek aske uzten zuen predikari bakoitza, eredu hainitzen aitzinean, bere stilo propioa sortzea.

Hona bada ondoren datorren sermoiarenean sarrera hitzak amaiturik, beraxek erabili hitzak errepikatzen ditudalarik:- *Maradikatuak ingratak! gose ukan dut eta ez didazue eni jatera eskeini, zer dolorea, zer pena handia, ogi apur bategatik, beire bat uragatik galtzea paradisuako gloria!*

Amaitu dut. Mila esker zuen arretagatik.

r *Erunt signa in sole et luna et stellis. L¹. 21.*

Goure *ginco* omnipotentac² bere orduz resoluturic pharaonen impietaten vengatcea, eta haren ientaten gaignen bere coleraren descargatcea , haren ruinala consentitu gabetarie,eracatsy cian hanitz signo lotsagarriric, orotan gaignetic equia, arguiçaguia
5 eta içarrac egon ciren hirour egunez aguertu gabetarie. Egipta herria oro tenebra handitan çagouelarie bere *gincouac* mundiaren urrentcian nahi dutialarie *rigourousqui* punitu guiçonon beccatiac gendiery bere colerac eta haren jugamentien indignationiac urrentcian concluditu gabetarie *icousaracirendu* hanitz signo
10 lotsagarriric, orotan gaignetic celuco candela eder hourac gorderen dira equia belsturenda arguiçaguia eclipsaturenda, izarrac eroriren

dira mundu oro tenebraz bete izanen dira, hits batez oro alarmatan izanen dira, egunco evangeliouac advertitzen gutu eta nic desiratcen dut cien entelegamentiec salutatcea.
15 Ecclesiasticouac representatcen dreicu scriptura s(an)tan bi personage direnac bata ascarqui çuhur eta bercia erho, çuhurrac ecarten dialarie bere bihotça esqu esquinian, erhouac aldiz esquerrian, eta letra baten hitsez dialarie **Cor sapientis in dextera eius, et cor stultis in sinistra illius**, San Hyeron(imoc)
20 interpretatcen dutialarie hits hoyec erraitendu entelle(gatu) behar direla asquen jugamentuaz, non s(an)tificatiac [...] bestera alde esquinez eta beccatoriac aldesquinian, eta mysterio handi hounec significatcen du ecy halla noulla beita çuhurtarçun handya bere bihotçaren, bere imaginacionen eta

¹ Lucas, xxi, 25. Orduan içanen dirade signoac iguzquian eta ilharguian eta içarretan: eta lurrean afflictione nationetà ez iaquinez cer eguin, orroaz daudela itsasoa eta bagác. (Joanes Leizarraga, *Jesus Christ gure iaunaren Testamentu Berria*, Pierre Hautin, Rochellan, 1571)

² ò ipotentac irakurri dugu duda anitzen ondoren, 1729ko sermoian ere ageri den hitza.

25 borontaten bere gincouary resignatcea egun batez S(an)tien nombre
handya bere inclinacionen eta bere affectionen bere gincouaren
utcultcea, egun batez reprobation nombrian jartceco
30 çuin beitura aldesquerrian. Eguiaren erraiteco nourc ere
consideratcen beittutu goure gincouaren jugamentiac
eracastendu onsa çuhur dela bena contrarioua eguiten dianac
ero dela. Çuhurac quittatcen dutu beccatiac gincouaren
justiciaren lotsaz, bercia hoboro beccatutan erortenda
ouste dialaric goure gincouac estutiala ohart ucanen
35 haren beccatiac.

Dant(e) Doctor handy harc consideratcen çialaric alde batetic
goure gincoua eta bercetic noulla guiçonac gaisqui tratacen
f.1v cien, etcielaric aprehanditcen haren maiestatia gutiago
cerbutçatcen haren handitarçuna, Jaun harc emaiten dian
40 arrasou da, ceren eta beccatorec espeituia pensatcen içanen
dela secula jugamenturuc haren biciaren eta obren
balantçan piçatceco. **Propter quid inritavit impios Deum dixit**

enim in corde non requirit. Ps. 9. Ceren dio gure psalmistac
alchatu du gincoua beccatoriac coleratan, ceren eta gaistouac
45 igaran beitu bere bihotcian, ene beccatiac espeitira punituren
eta gincouac espeitu gaistouen conturuc eguinen eta
eguia gaiça principala, ceren beccatoriac revoltatcen beitura
gincouaren contre, eta ceren eta ouste beitie estirela
behar erendatu contu bere actioneren eta haren bicia
50 estela chercatu içanen. Gaistouac beccatutan erorten direnian
ouste estela gincoric edo ouste badu badela ouste du
utsu dela, erraiten dialaric gincoua han gaignen da
odeien artian, eiticitcen gutu goure libertatian estu
conturuc eguiten goure beccatiez. Ha beccatoria cer

55 blasphemac erraiten dutuc. **Qui plantavit aurem non³
audiet; (aut) qui finxit oculum non considerat.** Ps. 93. Gincouary
icoustiaren idoquitia duc hary justiciaren eta providencia
ren idoquitia. Zacharie propheta handi harc icoussi cian egun
60 batez harribat çaspy lecutaric soguiten cialaric
ourtouquitcen çutialaric bere çaspy beguiac beguitarte batetara.

Super lapidem unum septem oculi sunt. Harry harc
errepresentatcen cian Jesus Christ goure salvaçalia eta
goure Jugia. **Petra aut sicut Ch(rist)us.** Beguy hayec
65 significatcen dreiquie goure gincoua estela utsu,
icousten diala alde orotaric, consideratcen dutiala goure
actioniac eta bicia oro. Job bici cen siniste hontan eta
erraiten beldurrequi. Ha jauna, huillendanic soguiten
deitadaçu, çuc contatcen dutuçu ene urratsac eta
70 actioniac oro, eniroçu denen eguin-ahal hory çuc
etcunian berhalla eçagutçiac. **Tu quidem gressus meos
dinumerasti⁴. Dimitte me ut gloriat salinam meam.**

Munduco lehen egunian goure creaçaliac divisatu
cian arguia tenebretaric, **divisit lucem a tenebris.**
75 St. Augustic separacione hounez entelegatcen dela
goure gincouac ainguriez eguin cian jugamentia

³ ô grafiaz.

⁴ Job. 14-16.

separatcen çutialaric hounac gaistouetaric. Entellegutuan
 emaiteco ecy halla noulla mundiaren hatsarrían içan cen.
 f.2r. celuco aingurien jugia, berehalla içanen cela (lurreco guiçonon)⁵
 mundiaren urrentcian lurreco guiçonon jugia. Betiere
 80 ohart guntian amourecatic ecy harc jugaturen
 guntiala &.

Hoboro mundia creatu cenetic harat çaspy guerren guiçona
 Henoç biciric hirour etan ehun eta hirour etan hoguey
 eta borz ourte haitatu içan cen goure gincouaganic
 85 haren asquen jugamentien predicatçale içaiteco. Miracuillu
 handiez goure gincoua hain sarri nahi içan dien minçatu
 asquen jugamentias, eta orano hoboro, etcelaric çaspy guiçon
 baicic haietaric nahi ucan dian predicatçia haitatu.
 90 Mysterioua eder da, ceren eta mundia ia eri beiccen eta
 eritaçunetan çaspy guerren egunian jugamentiac eta
 crisac (?) beitera [...] ⁶, eta ordian naturac bere effortac
 eguinic, eriac hobequi erideiten beitera eta mediciac

esperançatan jartcen eta hoyec horo cier erraiteco ecy
 beccatoria gaisqui erideiten denian haren arima estatu
 95 gaistouan denian, ordian behardiala beccatoriac ohartu
 asquen jugamentias eta goure gincouaren justicias
 ordian behar diala eguin effortatez beccatiaren aitortcera
 eta bere biciaren reformatcera hora da goure arimen
 ossagarria eta [...]

100 Oreigneç maite duie ascarqui musica eta hastio
 durunda. Dalibaden musicac attraparacitcen dutu eta
 durundac salvaracitcen, ecy bere umen eçarteco puntiala
 direnian çoin ucaiten dutielaric pena handi gabe
 durunda ceie hambat favorable ecy ençuten diren
 105 beçalla lotsaz descargatcen beitera. Job hartara
 jouaten cen erraiten cianian **Nunquid n(os)ti tempus partus**
(h)ibicum in petris vel parturientes cervas observasti.

Job 39. Animal hounen [robouç ?] handya maite dian
 harentaco gaisto dena, eta hastio harentaco hon dena
 110 guiçonaren [robouç ?] duçu orano handiago, ecy estiçu
 deus ere hain maiteric ecy ene munduco plaserac
 eta contentamentiac (çoin beitera haren)⁷ direlaric
 haren malheurrac, ceren eta denez ere hain
 hastioric, couina goure gincouaren maniac eta
 115 jugamentiac direlaric haren ossagarria çouinen
 ohartciac retiratcen beitu hanits, ordian becatutic
 eta penitentciatara eracarracitcen paradussiaren vicitceco

f.2v Eliça s(an)ta ama spiritu s(an)tian condusitia beccatoren
 120 advertitceco egunco egunian iratçartcen dutu asquen jugam
 entusco durunda, Aingurien trompeten içarren eclipsen
 lurraren içarren itsassouaren tempesten aberen acabiez
 eta berce gaignelatico gaiça tristez. **Erunt signa**
in sole et Luna etc. Oro ostouac beçalla egun hartan
 125 dio scriptura s(an)tac icaraturen direla. Hanitz signo aguer-
 turen dira egun hartara gabe, goure advertitceco
 dio St. Hyerosmac goure eguitecouac gougoua eman

⁵ ezabaturik.

⁶ urô

⁷ ezabaturik

- deçaque. Goure gincouac egun hartara gabetarie
 eguinen du juge subornatubatec beçalla, couinec
 130 estialarie desiratcen criminelu hartu eguinen beitu
 bere etchen sartu gabetarie hanits açalia, haren
- esquietara eror estadin amourecatic. Ecy goure gincouaren
 affectionez goure eretcin beterie, constraint delarie
 guiçon beccatoriaren hartcera, mundu hontara geissy
- 135 gabetarie eguinen du berhalla hanits açalia, oro peçouas
 gaigniala utculiren dutu, eclipsaturendu equia,
 egotciren dutu içarrac, icararacirendu lurra, icararac
 irenditu celiac eta bortiac, mundu oroc oihu eguinen du
 alarma alarma amourecatic eta guiçonac ençunic
 140 eta icoussiric ohart dadin asquen jugamentiaz eta
 bere beccatiaz psalmistac exprimatcen dutu hoyec
 gracia ederrez. **Dedisti metuentibus te significationem
 ut fugiant a facie arcus.** Ps 86⁸. Jauna, advertitcen
 dutuçu çoure manuz beguiraçaliac noulla behar
 145 diren paradussia irabaci.
 Misericordiasco signouac ere justicia esta secula
 jouaiten misericordia gabetarie haien bien artian
 bada bi arrebata inseparableen artian beçallaco associacio
 nebat, **justitia et pax osculatae sunt.** Ps. 84. Gincouaren
 150 borontatia da mundiaren gobernatcea misericordiaz eta
 justiciaz, misericordia eder beitu eta agradablea
 bena justicia faschous eta rigourous. Signo handiac
 eta lotsagarriac, equia, arguiçaguia eta içarratan
 nahidut erran Jesu Christoren Andre dena Mariaz eta
 155 S(an)tietan. Asquen jugamentian geischiren dira içar eder
 hourac celutic, ordian Andre handy harc ucaturen
 f. 3r. dreicou bere favoriac, ordian eitciren dutuie s(an)tiac bere
 otoitciac, ordian içanenda goure salvaçalia beccatoren
 contre coleraz eta passionez beterie, ordian duc
 160 mundia beccatietarie chahaturen, **Ecce agnus dei, ecce
 qui tollit peccata mundi,** ordian dutu oro balançan
 piçaturen. Christianouac, **levate capita v(estr)a,** goity
 cien gogouac, ordian icoussiren ducie equia eder hartan
 signo handiric, ordian equia date bere balançan,
 165 **sol ixit in libra,** ordian piçaturen dutu goure actioniac
 goure eliac eta goure pensamentiac oro, equia balançan
 denian uquiten dutu egunac eta gaiac bardin
 berehalla uqui handi harc alocaturendutu balançan bere
 jugamentien gaiac eta egunac, egunac bere semien gaiac
 170 maradicaturen.
 Bena Jauna oren miracuillu eta signo hoyec oro cergatic
 equia belsturenda, cer gatic arguiçaguia gorrituren ceio
 arguia, cergatic egotciren dutuçu içarrac celutic, cer
 oguenduruc astre eder hayec. İçar eder hayec cer
 175 oguenic ucanagatic signo hoyec oro helturen dira
 hanits arrasou gatic. **Primo** beccatiaren detestationetan
- punitceco eta rigourousqui gastigatceco [...] erendatu beitu gincouary. Soguineçaçie beccatiaren malheurrary, ceren eta equiac arguy eguinen beitu

⁸ Benetan Ps. 59

- 180 beccatoriari gincoua offensatcen cianian hartuco
condemnaturenda tenebretara, arguiçaguiac galduren
du bere arguia, gaiez ouhouiner argui eguiteagatic
eta içarrac eroriren celutic gaistouer favorable
içanagatic. **Quidquid delirant Reges plectantes**
- 185 **Achivi**, Equia, arguiçagua eta içarrac puniturend
ira guiçonaren beccatiagatic.
Secundo guiçonen estonatceco eta beccatoren
penitenciatara errecarraracitceco, eci celiac ecin
supportatcen ahal badu juge handi haren furia
190 cer eguinen du beccatore miserabliac tenebra handi
hourac icous ditzanian, jauna, cer eguinen duie
Josaphateco valian durunda hourac ençun ditcenian
ginco handi harc bere sahetsaz erazatu ditce(nian).
- f. 3v.
195 **O**tian beccatoria cer eguinen hic ordian, cer
refugio ucanenduc, nourc reteintureniz hire esparançac
oro galdu dutuquec. Adam jugamentiala deituruc jo cia
gordatcera çuhain batin piala paradussu terrestrian,
abscondit se in medio arboris paradisi⁹, cer eguin beittian
revelacionez eci curutcheço çuhaina içanen cela
200 beccatoren refugioia, bera asquen jugamentian hora
içanen ceic contrario, ordian çuhain hora lehen
lurrian lantatu içanagatic, celian enpeltaturuc iz,
eridenenduc. **Hoc signum exit in caelo, d(omi)nu(m) ad**
judicandum venerit. Ordian icoussirenduc jugebat çouinen
205 aittinian impossible içanen beittceic deusere estaltcea, **et tunc**
videbunt filium ho(min)is¹⁰. Impossible içanen ceic orê
beccatien gordatcea, ceren eta ginen beita **in nube**
gora handitan. Impossible haren puchançari resistat
cera, ceren eta ginen beita **cum potestate magna**
210 puchança handitan. Impossible içanen ceic denen
obtenitcea ototceç, ceren eta presidaturen beitu **in maiesta**
te, ordian jugaturen citic oro justouac eta injustouac
berac dio, **finis suspiro tempus ego justitiam indicabo**
eta solamente gueçour errailiac ouhouinac eta falsu pecu
215 eguiliac bona bertutiac eta justiciac. Ordian goure
- gincoua hambat terrible eratsirenda eci s(an)tiac berac
lotsa içanen beittira. Beha David guiçon s(an)tu hari
ere, **intimo in iudicium suum tuo.** Ps.42. Jauna
aprehenditcen çitiçuc çoure jugamentiac, nahi niqueçu
220 possible balia eneçaçun, juga ene beccatue araus.
etciren ene juge. Hola hain guiçon justouac
aprehenditcen badutu goure gincouaren jugamentiac
cer eguinen du beccatoriac, buruçaguiaren serbutçaria
hambat lotsa içan bada, cer eguinen du mitilarenac,
225 **temo enim tribula(ti)o magna qualis non fuit.**88.
Eguiaren tribulacione handia eta insuportabilia
ençun ditcenian juge handi haren reprotchiac erraiten
dialaric, maradicatiac ingratac gosse ucandut
eta esteitadacie enny jatera esqueini, **non dedisti**
230 **mihi manducare**, cer doloria, cer regretia, ogui

⁹ Genesi, 3-8: *et cum audisset vocem Domini vocem Domini Dei deambulantis in paradiso as auram post meridiem abscondit se Adam...*

¹⁰ St. Lucas, 21, 27: *Et tunc videbunt Filium hominis venientem in nube cum potestate magna et maiestate...et levate capita vestra.*

bougibategatic, beyrebat houragatic gal paradussuco
gloria.